

Hizkuntzaren lantzeko jokoen arauak

Biez pare bat

Kutxatik karta bat har ezazu eta hartan idatzia den hitza erran. Zure kide batek erranahi bereko hitza (sinonimoa) hautatu behar du beste kutxan. Joko bera egin daiteke aurkako erranahia duten hitzekin.

Mekahitz

Hitz erroak eta atzizkiak

Kutxa batetik hitz bat har ezazu. Zure kide batek, hitzari dagokion kutxatik atzizkia aterako du. Hitza osatu behar duzue eta erranahia azaldu. Erranaldi bat asma dezakezue hitz hori baliatuz. Ariketa ahoz egin daiteke edo kaierean idatziz.

Deklinabideak eta hitzak

Kutxa batetik deklinabide kasu bat har ezazu. Zure kide batek beste kutxatik hitz bat aterako du. Atera duen hitza deklinatu behar duzue eta erranaldi bat asmatu. Ariketa ahoz egin daiteke edo kaierean idatziz.

Aditz laguntzaileak

Kutxa batean bildurik diren kartetan, erranaldi hastapenak eta aditz erroak idatzirik dira. Mahai gaineen aditz laguntzaile jokatuak barreiatuko dira, denak begipean ukaiteko gisan. Erranaldi baten hastapen bat har ezazu. Zure kideak, erranaldi hastapen horri dagokion aditz laguntzaile jokatua aurkitu beharko du.

Hitz familiak

Hitz erroa gaineko laukian duzue; azpian diren laukietan familia bereko hitzak osa itzazu, eta marrazkia egin.

Hitzaldi

- Kutxatik karta bat atera ezazu eta hartan idatzirik diren hitz bakoiza erranaldi batean balia ezazu.
- Gauza bera egizu bi hitz erranaldi batean erabiliz.

Adibidez: **Goizean** igerilekura joan naiz eta **arratsaldean** bixkotxak egin ditut aitarekin.